

BALIO PROPOSAMENA

-Ze behar edo arazo konpontzen duzue?

Aisialdiaren beharra asetzen dugu. Jendea ez aspertzea daukagu helburu bezala. Ondo pasatzearen beharra asetzen dugu, askok ezin baitute ondo pasatu beraien egunerokoan. Oso garrantzitsua da gure burua ebaditzea eta daukagun arazoekin ahaztutzea, eta uste dugu paintball-a oso jarduera egokia dela horretarako. Familiarekin zein umeeekin joan zaitezke, edota lagunekin, beraz, edozein kopururekin joan zaitezke, horretarako ez baitago mugarik. Jateko edo edateko beharra izanez, kafeteri bat egitea egingo dugu..



-Zerk bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Gure inguruan ez daukagu paintbollean jokatzeko leku egokirik, eta hurbilen daudenak kilometro askotara daude, beraz, uste dugu gure herriaz gain inguruko beste herrietako jende asko etorriko zela. Guri gure hurbiltasunak eta barietateak bereizten gaitu batezere. Modu desberdinetan jokatu ahal dugu gure paintbollean. Serioago hartu nahi duenarentzat, edo ikasi nahi

duenarentzat, ikastaroak egongo dira monitoreekin, eta bestalde, alkilatu ere ahalko da, lagunek edota familiarekin jokatu ahal izateko.

Normalean, Paintbal-ek ez dute ikastarorik ematen, eta uste dugu jende askok interesa duela ikasteko nola jokatzen den ondo. Beste alde batetik, bezeroarekin beste enpresek baino hurbiltasun gehiago edukiko dugu, eta beraiek jokatu baino lehenago beraiekin hitz egingo dugu. Bezeroen partidak ikusiko ditugu, eta bukaeran, beraiekin komentatuko dugu nola joan diren partidak. Askotan gazteei ilusio handia egiten die komentatzea egin dituzten gauza edota jokaldi onak, eta uste dugu komenigarria dela, eta eskertzekoa dela.

